



BOOKTEGI

kateak kate

ITXARO BORDA

E
l
k
a
r
r
I
r
a
k
u
r
r
i
z



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ITXARO BORDA

kateak kate

Kate bat bere katebegirik
ahulena bezain indartsua da.

E
l
k
a
r
r
l r a k u r r i z

I.

« Emaidazu gorputza » xuxurlatu zuen orgasmoaren zazpigarren mailara jauzi egin zuenean. Mendeak pasatu zituen “pentsamendua” lehenesten eta bat-batean oroitzen zen gorputzak ere hor zirela, oihuak eta atsegin orroak gorputzu zitezkeela munduaren organikotasunean urtzeko. Iseuk ez zuen sekula horrelako bizitzarik dastatu. Kristi ezagutu zuenean bere eguneroko hitsaren norabidea aldatu zitzaion arras, eta horrek zer hausnartua ematen zion.

Burua utzi zuen Kristiren bularraldean. Zorioneko akidurak bihotzaren leku sekretu eta sakon haietarako norabidea erakusten zion, hatsanka zebilen oraino, tsunami baten mehatxutik korrika ilkiko balitz bezala. Kristi izango zen bere salbatzailea, horretaz seguru zegoen, beraien bideak ez ziren nehoiz bereiziko, gorputzen txirikorda betikoa zatekeen. Amodioaren ondotik gogoetak haragikoiak ziren, bista eta epe laburrekoak. Plazerak Iseuen etorkizun perspektibak murrizten zituen eta ongi zen horrela.

Kristik, bere aldetik, garuna huts zeukan. Bere saihetsean Iseu erabat errendatua ikusten zuen, erre gabeko talo baten antzera hedatua, besoak zabalik eta burua bere papoaren gainean, konfiantza osoan, pausaturik. Hargatik grabetasun eraso bat jasan zuen: “zer gertatuko da hemendik aitzina gu biontzat? Biok batera al gaude? Zer da bitasun hori?” Logelako izkina batean, jantzien armairuaren azken apalean kateak ikusi zituen, ikara batek larrantzi zion bizkar hezur aldea eta sentsazio lizuna suge arrautza baten moduan, ahur artean lehertu zuen istantean.

Paradisua itxura zuen mihise zinpurtuek doi-doi estaltzen zuten gorputz multzoak. Sexuak agerian zeuden, heze eta zintzilik. Izerdi perlak astiro idortzen zituen leihoetatik buhadaz buhada sartzen zen hego haizeak. Hitzak eskas ziren.

Hitzak agian ez ziren beharrezkoak gela itsu hartan garatzen ari zen munduaren ber sortzearen bidaldiak azaltzeko.

Kristik Iseuren bihotz-taupadak hautematen zituen, eta alderantziz, Iseuk Kristirenarenak zenbatu zitzakeen, iragarria zen apokalipsiaren egiaztatzea zinez konplituko zen une arteko segundo bihikak bailiran. Hasperen luze baten oihartzunak bete zuen Kristiren logela. Iseuk eskua bere sexura eraman eta gozatu zuen mendeetako orbaindu ezinezko zauria balitz bezala. Kristik eskua hartu zion, sexutik urrundu, gune sentsible horren balizko goseari lasaitasun zerbaiten oparitzeko.

Kristiren so obsesiboa ez zen kateen miratik aldentzen ahal. Burdinazkoak izan arren, urrearen antzera distiratzten zuten, han, armairuaren gainaldeko zokotto hartan. Orduak etorri behar zuen. Destinoa halakoxea zen. Kanta zaharrak zioena egia zen beti: “Plazeraren ondotik desplazera duzu”. Iseuk berehala ikasiko zuen hori bere kaltetan, baina artean, guzia bere onetan gertatzen ari zela sinetsi behar zuen, alabaina.

Ezpain mardul biz tapatu zion ahoa. Aho hartatik ez zen hitzik, auhenik, atsegin oihurik gehiago ateratzen. Hatsa soilik, apenas. Iseuk sexua are bustiago nabaritzen zuen, besteak halaber, eta berehalakoan bat egingo zuten batasun fisikoaren zurrunbiloan galtzeko. Berriz ere.

Iseu isilik zegoen. Kristiren atzamarrak sentitzen zituen gorputza zirrimarratzen, sarraskitzen, urratzen. Odolik eragin gabe. Iruditzen zitzaion errealitate birtualeko betaurrekoekin jotzen zutela larrua... Eta orgasmoaren espasmo bakoitzaren erritmoan “ihes egin behar dut, ihes egin behar dut...” errepikatzen zebilela konturatu zen, nahiz eta ohearen luzeran ez zen den-mendrenik ere mugitzen. Ez zuen mugitu nahi ere.

Loak eraman zuen Kristi. Iseu, aldiz, logelako detaileak bihikatzen hasi zen, memoria mamitzeko bezala, ez zuelako lo egiteko gogo izpirik eta izpiritua gose zebilkiolako, balizko ihes lineak marrazten. Kliskaz ari zen lanpara zurbila tabledenuitaren hedaduran, eta leiho ondoan, nehork irakurtzen ez zituen liburu metak baziren. Erdi aro kultural baten lekukotasun hutsalak ekartzen zituzten idazle gehienak ezagutzen zituen.

Kristiren bidea gurutzatu zuen eguneko egitarau hura oraino ere argi zeukan buru zokoan: Solstizio izeneko ostatutik jalgitzear zegoen, eta karrika betean, itzal bat sumatu zuen, beregana ziztu bizian zetorrena, kuzkatuko zuen, lehertuko zuen. Baina ez, banpez gelditu zen, Iseuren gorputzetik zentimetro eskasetan. Kopeta altxatu zuen:

-Barkatu, ez zaitut ikusi...

-Alta hemen nago, aski agerian.

-Kristi naiz... zerbait hartzera gonbidatu zaitzaket?

-Ehem... Eta bai, zergatik ez.

Solstizio tabernako zerbitzaria ez zen gutxi harritu agurtu berri zuen Iseu sartzen ikusi zuenean. Bazter ilun bateko mahai errunda hartan jarri ziren biak, manatu eta berehala muturpean zeuzkaten kafe biren aitzinean. Kristiren ahotsaren sakon abisalaz ohartu zen Iseu, eta kanpora begira zegoenean, Kristiren soa bere inguruan armiarma sare bat iruten sentitzen zuen. Nondik ateratzen zen izaki arraro hori? Bazekien, ordutik hara, bere bizitza norabide berri batean lerratuko zela.

Ohean, etzanik, momentu arraro bakun bakoitzaz oroitzen zen Iseu, Kristiren zurrunga hotsak entzuten zituen bitartean. Horma aroa zen. Malgor aroa zen. Gatibu aroa zen. Desio berezi batek sutzen zuen automata bilakatzen ari zen,

Kristiren begiek orainean iltzatzen zuten, jadanik noraezean zebilen beirazko ontzi baten azpian harrapatu eltxo baten moduan. Kristiren eskuak miresten zituen, haren papo alde oparoa, ile beltz nahasiak, sudur luze konkorra, lepo mehea eta mahaiplean hedatzen zituen hanketako zango sagar fin-finak. Zerrendatzen jarrai zezakeen: gorputza puskarik puska izendatzean, bizkar hezurrean behera menderatzen ahal ez zuen ikara bat somatzen zuen.

Maitemindu al zen? Lehen begiradan bertan? Ihurtzuri kolpe bakarrean? Ez zuen sekula, mirakuluz, agitu zenaren aztertzeiko betarik edukiko: kafe kikara hustu eta ordaindu orduko, Kristiren etxeko ganbaran zeuden, halako urgentzia tximista batean, elkar biluzten, elkar ferekatzen, elkarri ausikika, elkarri sexuak harrotzen eta elkarren desio autonomoz elikatzen.

Amodioa egin zuten hitzik gabe. Isilik separatu ziren. Isilik baina asebetarik. Nahiz eta hitzordu berririk ez zuketean finkatu, biharamunean berean, elkarren parean ziren Solstizio ostatuko mahai zokoratu hartan. Gorputzen loria mutua errepikatu zuten, errutina bilakatu zitzaien arte. Ez zuten galderarik egiten, automatikoa bezain naturala zen harremana, sentimenduen armiarma sare batean atzeman bi ulitxa ziren. Besterik ez. Batabesteari kateatuak ziren, ihes biderik imajinatu ezinez.

Kristik, bere aldetik, hasperen eta abere sangratu oihi artean, begi bat botatzen zien armairuaren gainean zeuzkan kate astun eta ziztrin haiei. Bazekien jokoaren pipertzera etorriko zirela, joko horri zaporea ematera, kilika eta kitzika... baina denbora ba zuela iruditzen zitzaion. Denbora bazuen, bai. Iseurengana itzulikatu zen, lo zegoen, biluz eta zabal, lasai, goloski asea, arrangura zantzu izpirik gabe.

Berak ere gogoan zuen elkar ezagutu zuten arratsaldea. Istripuz bezala izan zen. Xirripaz eta menturaz. Nork erranen zuen harreman ilun horrek iraunen zuela, egunez egun, gorputzen batasun misteriotsu baten uhinetan kulunkari? Ohetik altxatu zen. Freskatzeko beharra zeukan. Ur xirriztaren azpian zegoen, besapeak eta hanka arteak torratzen, desioaren itsasoa are indartsuago nabaritzen zuela. Idortzeko betarik hartu gabe, ohantzera itzuli zen, Iseuren saihetsera.

Gogoan zuen halaber, nola juntatzen ziren gauaren minean, han eta hemen, taupada elektronikoak ozen zebiltzan ostatuetan. House kutsuko erritmoekin. Musika horrek, neurri batean, beren bihotzen erritmoak irudikatzen zituen. Edari tonikoak eskatzen zituzten eta, eskutik helduta, gorputzen mugimendu sinkopatuetan galtzen ziren. Dantza-lekutik lanera joaten ziren zuzenki, arrats apaleko hitz orduaren peskizan.

Milimetroan antolatu bizi-modu batez gozatzen zutela sinesten zuten. Zinema erraldoietako komunetan jotzen zuten larrua, hipermerkatuetako pasabideetako arteketan, janari-zaborra zerbitzatzen zuten jatetxeetako sukaldeen atari gakotuetan, bata ala bestearen lantokietako jantzi-biltegietan. Lista luzatzen ahal zuten ad libitum. Batzuetan elkarrengandik urruntzen ziren, adibidez maitasuna mekanikoegia bilakatzen ari zitzaiela pentsatzen zutenean eta gertatzen zen, behin baino gehiagotan.

Baina, Iseuentzat bezain, Kristirentzat ere, onuragarria zen biek osatzen zuten bikotea. Kristik Iseu biziarazten zuen eta alderantziz. Sedukzio aldi horretan ongi sentitzen ziren, ezeren jabe izan gabe aberats, ez zutelako deusen beharrik gurbil eta zuhur, inoiz ez bezala eder. Galderarik ez zuten egiten eta ez ziren etorkizunaz axolatzen, funtsean beti zelako bihar hitzemanaren bezpera.

Bikote horri miresmenez hantu begiradaz begiratzten zioten lagunak. Erromantizismo fluido eta irrazional batek itotzen zituen eta halako begirune ezti bat nabaritzen zen jendartean, orokorki. Batzuek, alta, susmatzen zuten bikoteak eromenaren mugak ez zituela urrun, eroriko zirela baina ez zuten ezer erraten beraien istorioa zelako, beraiek ikusiko zuten, beraiek konponduko zituzketen harreman sutsu horren saihestasun kalteak oro.

Handik gutxira bi maitaleak birla trinko batean preso aurkitu ziren. Lagunak joan zitzaizkien. Hasieran ez zuten haien faltarik nabaritzen, maitasunak betetzen zituelako izkinak oro. Bekaitza zen. Berekoia zen oinarrian. Iseu eta Kristik ez zuten adiskideen beharrik susmatzen, ez baitzuten inoren premiarik, egia erran.

Iseuren ihes desio sekretuaren eta Kristik kateei egiten zizkien behakoz-zeiharren artean, bata bestearen gainean etzaten ziren, uhin hegala, ontzi herbat, hagin atal, ur eta tu epelez osatu itsaso baten erdian igeriketa bezala. Behatzek zulo sakonak zirikatzen zituzten, mihiak gorputzen eremuan hanturiko muinoetan lerratzen ziren, hatsak laburtzen eta segundoak luzatzen zitzaizkien. Larrua jo zuten berriz ere, bakoitza bere ohe-aldera bihurtu aitzin.

Betetasun sententzio errepikatuz ez ziren sekula asetzen. Goiz argi batez solasean hitatu ziren:

-Elkarrekin bizitzen jartzen bagina, galdatu zion Kristik Iseuri.

-Ez dakit, orain arteko bizi-modu hau gustatzen zait niri. Hitzak eta eguneroko errutinak niretzat, gutxi...

-Ulertzen dut, baina errazago liteke guretzat... antolaketa arazorik ez genuke.

-Antolaketa arazo horiek naute ni bereziki kitzikatzen...

Irri karkara mardul bat askatu zuen Iseuk. Kristik laguna algaraz ikusten eta entzuten zuen, pizten zen, itxi zezala aho puta hori, putzu beltz baten maneran irekitzen zekusan aho puta hori, zulo galgari hori, zertan zebilen Iseu bere barne-zauri isilduak berpizten? Esku biak bihotz moldean bildu zituen Kristik eta espazio hutsean Iseuren lepo fina kraskatzen irudikatu zuen, zintzur korroka biren artean:

-Ados Iseu, zuk nahi bezala egingo dugu.

-Ez nuen besterik espero.

Elkarri begira geratu ziren, sakontasun eta grabetasun astun minutuak zeharkatuz, mutu. Noiz arte iraun zezakeen suspense horrek? Ba al zekiten zer zuten bilatzen bata bestearen baitan? Arraposturik ez zuten galderak egiten zizkieten beren buruei eta loak hartzen zituen berehala bizkarra bizkarrari.

II.

Gauetik goizera erabaki zuten beren logelatik ez ateratzea. Bakoitzak bere lantokian jakinarazi zuen ez zela lanera itzuliko eta ez zuela balio nagusiak beraiengan konta zezan. Azken arrastiri apal hartan, hirian barna ibili ziren denda arrosetan erosketak egiten. Kristiren etxean sartu zirenean, janariz eta gozamenara egokituriko arnesez, tresnaz, girgilaz eta tramankuluz kargatuak ziren:

-Hara, prest gaude...

-Xanpaina botila hori irekiko dugu, erran zuen Iseuk, irri bero bat ezpainenetan.

-Zergatik ez!

Eta zartatze zarata bat hauteman zen, tapakiak sabaia hunki zuen eta erori zen hor nonbait, Jainkoak daki non. Iseu dutxatik pasatu zen Kristik afaria prestatu bitartean. Bustirik eta biluzik bueltatu zen bainu-gelatik. Kristiri hurbildu zitzaion eta, labearen aitzinean, arropak banan-bana idoki zizkion, soilik trapu-oihal koloretsu bat soinean utziz. Iseuren besoak gero, gerri inguruan trinko txirikordatu zitzaizkion.

Oliotan erre antzara-gibela prestatzen ari zen Kristi. Goi mailako janari hori ongi ezkontzen zen begi aurrean zeukaten xanpaina txinpartatsurekin. Ardi gazta xerra banarekin bukatuko zuten plazerezko itxialdiko beren lehen arratseko afaria. Egonen ziren bi-biak, begiz begi eta buruz buru, kanpoko begirada zirikari eta hastialetatik urruti, osatzen zuketan mundu perfektuaren muinean azkenean bakarrik. Ez zuten inoren beharrik. Ez horixe.

Elkar ezagutu zuten arratsalde mirakuilutsuaz oroitzen ziren. Etengabe kontatzen zuten, sosegatzeko gisa. Hitzordu furtiboak bazter utzi zituzten. Hitzak harilkatzen ikasi zuten hizkuntza arraro bat sortuz komunikazioa errazteko eta oztoporik gabe bideratzeko. Kontziente ziren, maitale guzien gisara, gramatika berri bat asmatzen ari zirela. Bi pertsonen arteko aditz-joko bekaitza. Besterik ez. Handik berehala, ez zuten inguruko jendartea konprenitzen ere.

Kristik antzara-gibel frijitu puskak ekarri zituen mahaira, leku pixka bat eginez sexu-jostailu ugarien artean. Plastiko arrosaren erresuma huts hartan, oraindik ketan zebilen janariaren presentzia bitxia zela pentsatu zuen Iseuk: kontraste trublantea zen, kezagarria halaber. Dei fulgurante batek larrantzi zion garuna: “ihes egin behar duzu Iseu, ihes egin behar duzu!”. Xanpaina txistua ezpainetara altxatu zuen hargatik eta deia mutua ezabatu zen, tupustean.

Latexezko edo silikonazko sexu malguak ferekatzen zituzten esku batez eta besteaz afari zaporetsua ahoratzen zuten, baltsa milimetratu eta aise ulergarri batean. Okerrak eta uzkerak hautematen ziren, eztulak eta sudur-zurruapak, zintzur karrakak eta sabel burbuila erakargarriak. Dena ona zen desioa pizteko eta asebetearen ondoko gose baten leizea irekitzeko.

-Musika jarriko dut?

-Isiltasun hau nahiago dut, erran zuen Kristik ahapez, zu zaitut entzun nahi, zure haragi arteko azantz guziak, zure tripa zolako karranka aitorrezinetatik haste.

Eseri zen Iseu. Galdera bat egin zion bere buruari, galdera isil bat: hau al da zoriona? Gizaki arrotz biren batasun hori? Izenik eta izanik ez zuen desio hori? Eternitate sentsazio hori? Ihes egiteko pentsu zital hori? Bestearen baitan errotzeko nahikunde mugaezin hori? Kristik bere aldetik ez zuen arrangura berezirik: dudak etortzen zitzaizkionean, ganbarako armairu itsuaren gainean zituen kateak irudikatzen zituen eta baketzen zen.

Denboraren kontzientzia minbera galdu zuten, ez zekiten gehiago zein egunetan bizi ziren ere, guzia jokoa zen, plazera, kontatu ezinezko plazera. Iseu Kristi zen eta alderantziz. Muga fisikorik ez zegoen bi amoranteen artean. Zaila zitzaien logela abandonatzea jateko, garbitzeko ala soilik leihotik begiratu eta kanpoan zer gertatzen zen ikusteko. Baina, egia erran, interes gutxi zuten. Ellen Fullmanen hari luzeen musika metalikoak betetzen zituen hasperenek huts uzten zituzten tarteak. Aspertzeko betarik ez zuten, betetasuna zen, eta betetasunak ekartzen zuen eternitate inpresioa.

Logelako hormetan dilingo zegoen pantailako irudiek akuilatzen zituzten urratsak. Zenbaitetan mendiak ageri ziren, ahalik gorenak, Himalaiako bortuak adibidez; besteetan, aldiz, basamortuak, sable xehe beilegizko dunak eta bertatik zutabe bihurri antzera altxatzen zen anbar usain beroa. Bakarretan, hiri handietako karrika immaterialetan aurkitzen ziren, eguzkirantz eske eta inpase ilunetan haztamuka. Zentzuen bizitasuna pizteko edozer zitzaien baliagarri. Dena eskura zeukaten, ahurrez ahur, begiz begi, mihiz mihi, ezer ordaindu beharrik gabe. Garai zoro eta aztoragarri horren bukaerarik ez zuten ikusten.

Baina, bata bestearen ondoan, aserik eta beterik loak eramaten zituenean, arrangura-uneak bazituzten. Galderak. Eredu mental grisak. Zalantzazkoak. Baten iheserako gutizia eta bestearen armairu gaineko kateekiko obsesioa. Kezka gogo-urratzaileak ez zizkieten elkarri aipatzen. Isilean atxikitzea hobe zela pentsatzen zuketen. Bestela, agian, batasun sinestezin hau hautsi eta nork daki zer gertatuko zen!

“Amets gaizto bat egin dut” oihuka iratzartu zen Iseu, Kristiren sorbaldak inarrosiz. Lagunaren betazala altxatu zen nagiki eta begira geratu zitzaion, harriturik:

-Ez al zara zoriontsu?

-Bai, baina amets horrek ez nau laxatzen, hor daukat beti, errepikakor.

-Konta iezadazu, behar bada...

-Uste duzu kontatzen ba dizut, bakean utziko nauela?

Eskakizun menderatua ihardespenik gabe abandonatu zuen Kristik. Hondarrean, balizko inguma beldurgarri horiek Iseuren inkontzientea sarraskitzen zuten mamuak ziren.

-Nire burua hiltzen dakusat. Gosez hiltzen. Industrialde amildu bateko lantegi desertatu batean nago, ezagutzen ez dudan norbaitekin. Haize hotza sartzen da teilatu peko zirrikituetatik, plastikozko xaflak entzuten dira klaskari, auhen urrun batzuk eta lurpetik datozen ur gargara izugarriak.

-Ifernuan zaude?

-Ez dakit, Kristi, ez dakit. Dakidana da hiltzen ari naizela, eskua papoan dut ahultzen doazen bihotz taupadak zenbatzeko, beldur naiz eta ez zara hor, nahiz eta deitzen zaitudan. Oihu egiten dut, baina hotsik ez da nire zintzurretik ateratzen...

Ahotsa apaldu zuen Iseuk. Izua irakurtzen zitzaion aurpegian. Bere burua konbentzitu behar zuen amets gaizto hori ez zela premonitorioa sinesteko, hor ez zegoela etorkizun hurbila iragartzen zuen ezer. Kristik musuz ixten zizkion ezpainak eta Iseu lasaitzen zen, emeki-emeki. Kasko zokoan, hargatik, ezinegon uher bat geratzen zitzaion, ilundura bat, beltzuri zerbait.

Atsegin-jokoak antolatzen zituzten, zoriari toki izpirik ez uzteko. Objektuekin hasi ziren lehenik. Zerrendak osatzen zituen bakoitzak, harremana pipertzeko gauzak tableta arrosaren pantailan idatziz. Iseuk berea aldarrikatu

zuen egun luzearen buruan: orrazia, ezpain gorritzekoa, usain ona, koilarea, kotoia, paperrezko loreak, kandelak, mutur zapia, ispilua, Polaroid aparailua, arkatza, liburua, luma, ardoa, eztia, saboia, zetazko atorra, aulkia, soka, abarra, oliba olioak, sagarra, mahatsa, chaumontais puska, ezkaia

-Aski, lagun, aski! Nora eraman nahi nauzu?

Kristiren galdeak burtzoroa eragin zuen Iseuren baitan. Iseu, papoa, titi punta urriak eta sabelpea eztiz estaltzen ari zen, lagunaren gosea sustatu nahi bailuan. Mihia luzatu zuen entzule zetzan maitaleak, mihi hamikatua, eta gorputzaren eremu distiratsuan barna milika-lapa etengabea galdu zen. Kristik ere bazuen zerrenda bat buruan biribilketari. Intziri biren artetik bere lista xuxurla zezan eskatu zion Iseuk:

-Zure aldi orain, ezta?

-Bai, kuttuna, bai. Honatx: ordenagailua, sexu-harreman aplikazioa, notak hartzeko kaierra, irudia, nahasketa, tsunamia, mendiko bidea, nortasun agiri zaharkitua, xanpaina, laranja, mertxika, lau koloretako boligrafoa, mahaia, ogia, labana, burukoa, ikatza, plastikozko poltsa, garbigailua, irratia, musika podcasta, soinu espazial minimala, ekilili brotxak eguzkia, ilargia, ura, botila, sagua, P38 pistola, ka...

Isildu zen Kristi. "Kateak" erratear zegoen, ez, ez zuen horrelakorik jarriko bere zerrendan, gogapen obsesiboak eskatzen baldin bazion ere. Pistola kargatua ere ezabatuko. Lanjerosegia zen. Tentazioari uko egin orduko, marra abstraktuak ikatzarekin margotzeari ekin zion, Iseuren gorputz asebate eta eskainia beltz-beltza uzteko. Iseuren hasperenak arinak ziren, NASAko grabaketetan entzuten ziren izarrenak bezain. Hegalez zebiltzan. Titiak dardarka ari zitzaizkion Kristiren ikatzaren azpian.

-Beste joko bat?

Iseu ohe gainean luzatu zen hanka artea zabalik. Kristiren ausikia nabaritu zuen bere sexuaren hedaduran. Ezpainak ezpainekin biltzen ziren, itsaso likatsu baten erdian. Orgasmoaren atarian, ahoa urrundu zen eta Kristik ohe azpira jauzi egin zuen. Errauts, hauts eta zaborretan aurkitu zenean, esku ezkerreko bost behatzez, sexua kitzikatzeari ekin zion, bere funtsezko desio bizitorea ahots goraz harilkatzearekin batera:

-Amets dagit. Zurekin nago, Iseu, betirako. Atsegin adina min eragiten dizut. Pistola daukat eskuan. Erruleta errusiarrean jolasten gara. Bala bat bada, zuretake edo enetako. Bientzat berdina. Ez dirudi bizirik aterako garenik istorio honetatik. Ez gara bizirik aterako...

III.

Iratzarri zen Iseu. Besoa eskuinera luzatu zuen: nehor ez zeukan aldamenean. Iruditu zitzaion, aspaldiko partez, bakarrik zegoela ohe handiegi hartan. Non zen Kristi? Oihu lizuna askatu zuen. “Non zaude, maitea?” errepikatu zuen behin eta berriz. Arraposturik ez. Nora joan zen bere maitale mirakuilutsua? “Janaria eroatera agian...” pentsatu zuen berekiko. Begiak itxi zituen eta itxeska keinuka hastean, eskuak eta zangoak oheko burdinei katez lotuak zituela konturatu zen. Desio tximista batek urratu zuen. Sexua urez emokatzen nabaritu zuen, Kristi itzuliko zenerako bero-bero zatekeen.

Loak eraman zuen kulunka arin eta azaleko batean. Erdi iratzarririk eta erdi lo zetzan. Betazalak altxatzen zituenean, ametsaren haria hausten zela ohartzen zen: kate itxurak zituen buruan, gorputzik gabe lasterka zebiltzan oin itxurak, itxura nahasiak, ulertzen ez zituenak. Mugitzen saiatzen zenean kateen mugak jotzen zituen. Ez zen gaizki alabaina, baina ez zitzaion gustatzen trabatuak zituen beso-zangoen mugimendu horien murrizta sentitzea.

Ohe aurrean zegoen ordulari erraldoian minutuen orratza jarraitzen zuen. Begiak zenbaki erromatarren itzala zedarritzen zuen, tik-tak lantzinante baten erritmoan. Minutu bakoitzeko hirurogei segundoak kontatzen zituen Iseuk, ziztu bizian eta abiadura urrian pasatzen den denboraz jabetu nahi bailuan. Izpiritua betetzen ahal zuen, baina ez zen Kristiren itzalik nehon ageri. Leihotik, eguzkiaren argitasunaren ortze Erdiko bidaia ere segitzen zuen, goizetik arratsera:

-Non dago Kristi?

Erantzunik ez. Ellen Fullmanen soka luzearentzat soinu metalikoaren grabaketa ere bukaerara heldua zen. Isiltasun dorpeak lehertzen zuen, behiala

hainbat azantzez, auhenez, intziriz betetzen zuen ganbara itsua. Beldurrik ez zuen oraino sentitzen, bazekien Kristi itzuliko zitzaiola larrua jotzeko animoz hanturik. Gidoi lizun berriak asmatzeari ekin zion, ahots goraz:

-Kandelen erritualak konplutuko dugu, Kristiren gorputzaren eremuan, zazpi kandela pausatuko ditut, eta lagunak ez du higitu beharko, bestela erreko da, arriskuaren desioa eta desioaren arriskua, biak ditugu dastatuko...

Begiak ixten zituen gogoetaren txukunaz gozatzeko. Iseurentzat, atseginaren linbo-hegietan, gauak eta egunak bereiztea joko bilakatua zen: Kristi bueltatuko zen, bueltatu behar zuen, Kristi gabeko bizitzak ez zuen bizitza izenik merezi:

-Esperantza da galtzen azkena, errepikatzen zuen bereber, lehen aldian sinetsiz hala zatekeela, eta bigarrenean, erabat etsituta, bazekielako hori ohizko erran hutsala baino ez zela.

Laugarren gaua zeharkatu zuen. Ilargi betekoa. Sexua idor-idorra zeukan, ezpainak lehor eta sasi arteko hondo ilunak amildegi. Egia zen sabela korrokaz ari zitzaiola gosearen poderioz. Aitortzekoa zuen egarri ere zela. Eta ezin mugitu hori: "Kate madarikatu horiek!" Kristi ez zen agertzen... agertuko zena? Iseuri iruditu zitzaion, erosketak egitera atera baldin bazen, denbora gehiegi ematen zuela erosketetan. Zerbait gertatu zitzaion? Istripu bat? Norbaiten ezagutza egin zuen? Jeloskeria zirrizta batek sutu zion bihotz aldea.

Negarrari eman zen.

Gorputz osoan antsia hedatzen eta giharrek gogortzen senti zitzakeen. Zangoak eta besoak ez zituen mugitzen ahal kateengatik. Libratzeko mugimendu zainartak egiten tematzen zen, eta ukaraietan zein orkatiletan, odolaren isuri

epela nabaritzen zuen. Izu malkoak bailiran, odol ttanttek mihise zuriak tatxatzen zituzten. Oihu egin zuen:

-Urde zikina, nora joan haiz? Itzul hadi arren ! Salatuko haut! Hemendik atera bezain laster polizia-etxera zuzenduko naiz... Kristi, non hago?

Orroaz ari zen. Haizeak baizik ez zion ihardesten. Oihartzun elkorra zulo beldurgarria zitekeen. Bere burua erortzen irudikatzen zuen, luma baten pare, zirurika, lasto hauts soila izan balitz bezala. Hausnarrean galtzen zen: "Eta nik ez dakidala Kristi hori nor zen, funtsean ez nion sekula eskatu bere izena zein zen, maitemindu ginen eta kito... Biziak, gero, eraman gintuen, ur xortola amilduok plazerezko itsasoan itotzera. Itsua nintzen,itsuak ginen, mutuak ere bai, isil-isilik betetzen genuelako gure sexu harreman luzea. Zer egin dut?"

Bere buruari ez zion inozentzia hori sekula barkatuko. Batzuetan, haatik, Kristiren figura distiratsua zetorkion kasko zokoaren harrotzera. Halako zorion inpresio batek gorputz osoa irradiatzen zion orduan. Inurriek kilikatzen zioten oinatza, eta esku-muturrak malgu sentitzen zituen. Askatzen ahal zela imajinatzen zela heldzen zen unean, errealitateak harrapatzen zuen, bat-batean katez loturik zegoela onartzera behartua baitzen. Kristik asmatuiko joko sexual bat gehiago ote zen? Kristi bera hor zegoen nonbait logelaren xoko batean, begira eta menturaz lseuren kalbarioa grabatzen?

Ez zituen gehiago gaua eta eguna bereizten: orduak pasatzen ziren sufrikarioak areagotuz. Eta Kristi ez zen agertzen. Madarikatua! Gaizki pentsatzen hasten zenean, indarrak berreskuratzen zituela zirudion. Baina debaldetan. Ondoko segundoan, ahul eta flako sentitzen zen, ezintasun morbido batean igerika. Bertan hilen zela bazekien, ihesik ez zeukan, nehor ez zitzaion salbatzera etorriko. Edo beranduegi, guzia kontsumitua izanen zenean, bizia eta heriotza, iragana eta etorkizuna, argia eta iluna.

Egunean zehar, gosea eta mina ahanzten saiatzen zen Kanpotik zetozen azantzetan, zaratetan eta hotsetan jartzen zuen arreta. Autoen burrunbak entzuten zituen, Kristiren kartierrean zegoen lehen mailako eskolako haurren algarak, auzoek erabiltzen zuten igogailuaren atearen klaskak, zakur baten zaunkak, hurbileko neska txikiaren kapritxoaren ondoko negar ozenak, ama baten erasia lerroak. Soinu-soka horiek beste mundu baterako atea irekitzen zioten: askatzen ahal balitz bederen...

Damuaren zama arintzeko, Kristirekin pasatu momentuak oroitzen zituen, bederazka, garai haietan axolarik gabe bizi zela onartuz, behin eta bietan. Orduan, idorreria gaindituz, bere sexua heze irudikatzen zuen. Gorputz mehatuak plazeraren zirrarak ez zituen ahanzten, ikarak hor ziren hezurren tarteak inarrosteko, sentsazio bitxiak, desioaren permanentzia, herioaren bezpera. Seduzitua izatearen eta sedukzio nahikundea indarrean zebiltzan beti, bipil eta sotil, nahiz eta bazekien mugara hurbiltzen ari zela, azken mugara hain zuzen ere. Eskapurik ez zegoen.

Egunak, lo koma antzeko batean iragaten zituen. Iratzartzen zenean, goseak eta gorputzaren tristura larriak min egiten zioten. Kontzientzia galtzen zuen ziztuan, auhen argal batean. Iruditzen zitzaion ahotsak aditzen zituela, hatsik gabeko irriak, zarata bitxiak ere, abere marruma izenda ezinak edo bele beltz kroak ganbararen atarian. Bat-batean, izu isuri batean itotzen zihoan.

Iseu ez zen eroa: ahotsak egiazkoak ziren. Harramantzak gela betetzen zuen, sartu eta atera ari zen dantza lantzinante batean. Kristi ez zebilen urrun, gehienetan ohe buruan zegoen Iseuren inkontzientzia uneak babesten. Pozten zen sekretuki, Iseuren iheserako gutizia menperatzea lortu zuelako. Harrapari

izpiritua esnatzen zitzaion, eta Iseu, kasu honetan, harrapakina zen, harrapakin perfektua.

Kameraren memoria-karta aldatzeko hurbiltzen zen Iseu zetzan ganbararen bortaren beste aldera. Zulo txikia bazen hormaren erdian, eta fokuak, ohean eta beso-zangoak katez loturik zituenarengana luzatzen ziren. Kristik gozatzen zuen lagunaren sufrikarioak milimetroan filmatzeko orduan. Plazerra eman zion, bistan dena, eman zioten elkarri agian, baina ba al da gaztigurik gabeko plazerik? Sedukzioak, gozamen garaian zehar, heriorako bideak irekitzen zituen. Tresna bihurtu zuen Iseu, erabili eta piltzar zikin baten antzera zaborretara aurtiki aitzin. Hondar uneen espektakuluaren irudiei uko egin gabe.

Bazekien, atsegina, sufrantza eta herioa, guzia maitasunaren izenean bizitu zituela Iseuk. Ez zen ohartu ere egin, momentu batez, Kristiren gogoa erabat aldatu zela, isilean maitasunetik gorrotora jauzi egin zuela. Inozentea izan zen? Mesfidatu beharko zuen? Amodioak mesfidantza harresiak oro hausten zituen eta gizakia defentsarik gabe uzten zuen, menpeko, meneko. Kristik, kameraren memoria-txartela kanbiatu zuen: azkenekoa izanen zen. Ellen Fullmanek soka luzearentzat sortu melodia metalikoaren musika jarri zuen, alde egin aurretik.

Damu uhin latzak troxatu zuen Iseu. Pentsamendu obsesiboak larrutzen zion garun lehorra: “Zergatik ez nuen ihes egin ordu zenean?” Zazpi hitzekinosatzen zituen bere erranaldi errepikakorrak. Ez zihoan urrunago. Eleak galtzen joan zen, “Zergatik?” galdegai biluziarekin geratzeko. Handik gutxira, gau zohardi batez, “Zer?” baizik ez zezakeen ahoska. Bere ustez, mendeak baziren “Zer?” horrek arraposturik ez zuela erdiesten, ez ziola nehork gehiago erantzunik ematen.

Arratsaldeko hirua ziren. Ezpainak lur sentitzen zituen, kraskari. Hezur eta larru bilakatua zen. Itzal bat bazegoen inguruan, zomorro edo mamu bipedo, irautera bultzatzeko ez, baina bai hilko zen segundoan laguntzeko. Baten bat itotzera zihoanean bere bizia abiadura lasterrean pasatzen ikusten zuela oroitu zen. Halaxe izan zen Iseurentzat: haurtzarotik helduarora iragan zen, ziztuan, gurasoak ikusi zituen, maitaleak, ama hil zitzaioneko egun doloretsu hura... “Orain nire aldia da” pentsatu eta garuna betetzen zion iruditegia ezabatu zen. “Banatorkizue...” marmartu zuen eta hatsez hustu zen.

Kristik Iseuren gorpua ohe gainean abandonatu zuen. Norbait axolatuko zen noizbait hezur eta larru baizik ez zen gauza horretaz. Kameraren memoria-karta hartu zuen, lasai, ongi burutu lanarekin pozik, antzeko bere eginkizun artistikoen kaxan sartzeko. “Desioak bizirik diraueno, herioak ez du goserik ezagutuko” erran zion ganbaratik ateratzean, hormetan luzatzen ikusten zuen bere ingumari. Munstroak jarraitu zuen.

Kateak ere berarekin eraman zituen. Astun zitzaizkion eskuetan. Kate horiek ezeztatzen zuten baten ihes nahikundea, herioaren ateak irekiz. Etengabe. Asebetetze maila ongi egituratuen aitzakia-mendietan errotzen ziren goseteak. Afera honetan Iseuk bere lekukotasuna ekar zezakeen, beranduegi izan ez balitz.

Isturitzen idatzia

2025ko uda